

Astekaria

**Z
E
R
B
I
T
Z
U
A**

elgoi



EUSKAL BIZIKLETA ELGOIBARREN

Txirrindulari tropela bisitan

MEZULARIAK
GURIA EXPRESS
 PREMIAZKO GARRAIOA
 "Garraioaren boutique-a"


**Z
E
R
B
I
T
Z
U
A
K**

- PROBINTZIALA
- 10 N. - 14 N. - 24 N.
- NAZIONALA EGUNERDIAN
- IRLAK - NAZIOARTEKOA
- ZERBITZU ZUZENAK
- KORRESPONDENTZIA
- ERRENBOLTSOAK
- BESTE PLAZA BATZUK
- GESTIOA - FIJOA - BALJAK
- ENTREGA BAEIETAPENA
- EROSKETAK
- IBILGAILUEN ALOKERA

300 banaketa puntu baino gehiago Espainian
Nazioarteko zerbitzua munduko edozein tokitara



Ermuaran Bide, 16 - 2 · ELGOIBAR · Tel - Faxa: (943) 74 40 54



GARATE



Levi's Denda Baimendua



elgoiBARREN
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZTATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldeggi, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.600 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoiBARRENez ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



luzna fundazioa
Fundación luzna

ZENBAT BURU



HAINBAT ABURU

Aurrera begira

Ritsi zaigu guri ere, batxilergo ikasketak bukatuta, etorkizun “aukera” egiteko garaia. “Aukera” diot, ez baitakigu etorkizun bila goazen ala geroa bera den gu aurkitzen gaituena. Dena delarik ere, gehientsuok ikasketekin jarraituko dugu, unibertsitaterik hoberena bizitza bada ere, prestakuntza saioak ez baitu inolako kalterik egiten.

Egia da, egun dauzkagun hautabideak hamaikatzeko direla; espezializazioa medio, behiala baina lanbide esparru zabalagoa eskaitzen zaigu; hezkuntza publikoa dela eta, ate gehiago irekitzen; komunikabideek ere eraitsi dituzte geografi mugak. Erroturiko ohiturei jarraitu beharrik gabe, beraz, bide berriak jorra ditzakegu. Hala ere, ez da bakarria izango, ez eta bi ere, zer hautatu ezin jakinik, lehentasun argirik gabe, denboraz estu samar gainera, zerbaiti heldu behar eta aukera nahiko itsua burutuko duena. Inork pentsa lezake gazteriak lanerako ekimen falta duela. Ez dut uste alperkeria kontua denik, Jainkoaren mahastian denetarik dagoen arren; baina zer dakigu bada, haiei buruz?

Gauzak horrela, batzuk unibertsitatera, beste zenbait moduluak egitera... bestelako titulurik nahi duenik ere ez da falta. Hots, modagatik, merkatu eskaeragatik zein irteera oparora aurrikusten duelako, bakoitzak norabide batean darrai; ahal bezala. Orokorreran Euskal Herriko, eta konkretuki eskualdeko industria ekonomia batek baldintzatuta agian, injinerutza eta ekonomi ikasketak

indarrean daude, aukera humanistikoak atzean utziaz. Kapitalismoa, pragmatismoa... norberak nahi bezala hots egin biezaio; ez da hori kontua. Bermeora arrantzale doanik ez diot behintzat inori entzun.

Ezin ukatu artista joerarik badagoela. Kasu horietan, ordea, langabeziaren aurpegi hitsa hurbilago dakusagu, are hurbilago. Seme-alaben lepotik bizi ahal izateraino - patrikatik hobe legoke- gurasoenetik bizitzea ezinezkotzat jo eta aisialdirako zaletasun modura baztertzen dugu geure artistatasun guztia. Bidean Oteiza edota Martirioren bat galdu bide zaigu.


Bokazioarena beste kontu bat da. Honetaz bai gabiltzala larri. Astronauta eta gorila domadore ametsak ahaztu ditugu gehienok. Ba omen da bakoitzaren izakera-ekin bat datorren lanbide ezinhobea. Hala izanik ere, azaleratzeko pizgarri bat behar du ezbairik gabe. Sabela pizgarri sendoa izan daiteke, bai horixe! Gaur egun, gose garaietan gainezka egon ohi ziren monastegiak erdi hutsik daude; inpartziala izateko, erdi beteta.

Aukeratua aukeratuta ere, nork daki non bukatuko dugun. Ikasketak amaitu eta pareko lanbide bat topatzen dutenak beste dira beste arlo batean aritzen direnak, eta ikasketak bukatzen dituztenak baino gutxiago.

Ordurarte, hiru hilabeteko oporrak ditugu, oraindik bataiatu gabeko belaualdi honetakook.

Lucia Zubiaurre

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



? GALDERAK

Neska gazte batek honako galdera hau egiteko eskatu digu: Zer egin behar da Gazte Asanbladak Udaletxean aurkeztu zuen txostena eskuratu ahal izateko? Gazte Asanbladakoek esan digutenez honako bi egun eta tokitan eskura daiteke txostena:

- . Asteartero Plaza Txikiko ganbaran arratsaldeko 7,30etan
- . Asteazkenetan, Zazpikiko 7,30etako irratsaioan.

KEXAK

Emakumezko batek deitu digu **kaleetan zehar bizikletan** ibiltzen direnei kontu handiagoarekin ibiltzeko esateko. Orain dela gutxi bizikleta batek harrapatu egin omen zuen. Udaltzainei, berriz, bizikletazale hauek zaintzeko eskatu nahi die.

TXALOAK

Aste honetako txaloak **Talde Antimilitaristarentzat** dira. Batetik, emakume batek deitu digu intsumituek erakutsi duten “korajea” azpimarratzeko. Oso egitasmo majoa prestatu omen zuten. Bestetik, Pilar-eko 7. mailako hiru neska etorri dira Bittor Aiaperen kontzertua asko gustatu zitzaieela esateko.

ESKUTITZAK

“Buenos días, queda usted detenido”

Ez da batere gustukoa goizean goiz lanera zoazela, paisanoz doazen ertzainek atxiloturik zaudela esatea. Are gutxiago inongo arrazoirik ez dagoenean.

Gure kuadrilako Angel Oterok egoera hau bigarren aldiz bizi izanak bultzatu gaitu eskutitz hau idaztera.

Aurrekoa Gazte Asanbladak Plaza Txikiko lokal bat okupatu eta Ertzaintzak handik aterarazi zituztenean gertatu zen. Arrazoa: argazki kamera bat zeraman lagun batekin egotea izan zen. Oraingo honetan, berriz, irailaren 13an Elgoibarko Peugeot-en gertaturiko eztanda leporatu diote. Eztanda gertatu eta gutxira gure kuadrilako bi lagun zer gertatu zen ikustera gerturatu ziren bizikletaz. Itxura denez, bere hatz markak aurkitu zituzten inguruan, beti ere ertzantzaren esanetan.

Bi kasuotan inongo errurik izan gabe eraman dute gure laguna, ingurukoentzat suposatzen duen “moskeo” eta inpotentziaz gain, bizitza guztirako fitxatua geratuko delarik. Horregatik, bere adiskide garen heinean, atxilotzeko agindua eman eta bete dituztenei gure laguna pakean utz dezazuela eskatzen dizuegu. Era berean, bere inguran azkenaldi

honetan “pertsonek” jakin batzuk egiten ari diren komentario faltsu eta intentzio txarrekoak ixilarazi eta nahi ditugu eta bide batez bere senitartekoei gure elkartasuna adierazi.

BERE KUADRILAKOAK ETA LAGUNAK: Ohiana Tarragual, Josu Iparragirre, Garikoitz Riaño, Lordi Txurruka, Aritz Leon, Zigor Azkoaga, Oier Aldazabal, Unai Meabebasterretxea, Asier Lasuen, Ion Astigarraga, Nestor Fuente, Hektor Menezo, Unai Froilan, Josu Iriondo eta Andoni Rementeria.

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK





Jose Gurrutxagak ekarri digun erretratu hau 1934ko ekainaren 30ean, Pilarreko ikasleek Zarautzera egin zuten txango batekoa da. Zarautzeko hondartzan daude elgoibartar hauek, Narros jauregiaren aurrean. Asko direnez erretratukoak ez gara gehiago luzatuko.

Atzean tente bera bakarrik: **Gregorio Irureta-goiena**. Ezkerretik hasita lehenengo ilaran atzean: **Juanito Armendia, Bernabé Mujika, Anjel Azkue (†), Manolo Gabilondo**, (ilarak atzean jarraitzen du) **Santi Zuazubiskar, Jose Juaristi (†), Agustin Sanchez, Antonio Gabilondo (†), Paco Juaristi (†), Luis Jauregi, Eugenio Mujika, Juanito Artetxe (†), Paco Egaña (†)** eta **Ignacio Barrenetxea**.

Bigarren ilaran: **Antonio Unzueta, Ramon Maiztegi, Marcelo Ajubita, Jose Fernández de Jauregi,**

Jose Arocena (†), Manuel Aranberri (†), Juanito Arrieta, Angel Ajubita, Ladis Iñiguez, Don Ambrosio Egia (†), Rafael Etxaniz, Jose Maria Etxabe (†), Imanol Sodupe, Jose Gurrutxaga, honen atzean **Julian Iriondo, Jesus Egaña, Juan Jose Beloki** eta **Amadeo Garate**.

Hirugarren ilaran: **Juanito Atxaorbea, Basilio Igartua, Manolo Ruiz, Joxe Iriondo, Constan Sanz (†), Antonio Arriola, Pedro Azpiazu, Eulogio Etxeberria, Vixente Berasaluze, Asensio Olalde (†), Anacleto Rementeria (†), Jose Arrieta, Carmelo Iriondo** eta **Jesus Fdz. de Jauregi**.

Laugarren ilaran eserita: **Santi Ansola, Manuel Zabaleta (†), Jesus Unzilla, Ramon Ezenarro, Fernando Monje, Luis Arriola, Jose Azkoitia, Julio Uribe, Ladis Zabaleta (†), Jose Uribe, Antonio Zabaleta (†), Pedro Jose Arriola, Bittor Arrieta** eta **Julio Serrano**.



I. URTEURRENA

1995eko maiatzaren 26an hil zen JUAN BELOKI EVARDONEren oroimenez urtemeza izango da hilaren 26an, igandea, eguerdiko 12etan Parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik mila esker.





148a Barrena


3.10.1996




Bi eguneko zoramena gurpil artean



Indurain, Zulle edo Rominger bezalako txirrindulariak ikusteko aukera ez da askotan izaten. Aurtan, antolatzailleen ahaleginari esker, etapa bat Mintxetan amaitu zen eta bestea Plaza Handian hasi. Batean eta bestean ehundaka herritar elkartu ziren, batzuek zaleak izan eta Euskal Bizkleta zuzenean jarraitzeko asmoz, besteak kuriositatez, aurrez-aurre “figura”ren bat ikusi nahirik. Mintxetako helmugan Indurain, Rominguer eta besteak ikusteko aukerak ihes egin bazigun ere, ostegunean Plaza Handian harrapatu genituen, irteeran, sinatze-ekitaldian. Kilometroetako maskotak ere han izan ziren eta zaletuak non-nahi autografoen bila. Kamarak, kazetariak, kotxeak, iragarki erraldoiak... Inoiz ez bezalako itxura izan du eguntan herriak. Julian Gorospe eta Marino Lejarreta ere ibili ziren ETBko estudioan eta Mintxetako podimun-ean Mikel Zarrabeitia euskalduna izan zen protagonista etapako irabazalearekin batera, Alessandro Bertolini. Podium-ean aurpegi elgoibartarrak ere ikusi ziren txapeldunen ondoan, Kutxaren izenean Enrike Zubiaurre, Eroskiren ordezkaria Pepi Etxaniz eta, Erroka Kastrillejo, azken honek Xigortze Komertzialeko Saeco kafetera bat oparitu zion irabazleari.

Hurrena noiz izango den jakiterik ez badago ere, aurtengo esperientziak zapo-re goxoa utzi du herritarren ahoan. Ez da gutxi!





Euskal Bizikleta

Euskal Bizikleta bezalako lasterketa bat Elgoibarren ikusi ahal izatea gertakari handi bat da, oso gutxitan gertatzen diren horietarikoa. Aspaldikoa da Euskal Bizikletaren edo Euskadiko Itzuliaren etapa bat Elgoibarren antolatzekeo nahia, eta azkenean lortu dugu. Herritar askok jardun dugu lanean dena prest edukitzeko. Lagun Taldeko gurasoak, Gure-Bidekoak bai eta Udaletxeok ere, guztira 50 lagunetik gora aritu gara lanean: bailak jarri eta berriro kendu, kotxe ilarak antolatu... Muntaia izugarria izan da. Datu modura zera aipatuko dut: 18 ekipok hartzen du parte Euskal Bizikletan eta bakoitzak lau bat kotxe ekartzen ditu. Hauez gain, kontuan izan behar da karabanak, autobusak etab. ere badaudela eta hauek ere antolatu behar izaten direla. Honi guztiari aurrez izan ditugun bilera guztiak gehitu behar zaizkio. Antolakuntza lan dotorea egin dugula uste dut, errurik gabe, nahiz eta Marino Lejarretak telebistan esan omen zuen Mintxetako helmuga "entzerrona" moduko bat



FELIPE CALLEJA

izan zela. Helmuga gutxi egongo dira Mintxetako bezain ondo antolatuta! Makaleko lana egin du jendeak eta hori eskertzekoa da.

Bestetik, txirrindularitzako izar handiak, Indurain, Rominguer, Zulle eta besteak gure artean ikusteko aukera izatea ez da egunero gertatzen. Gainera, izarrek gertutik ikusteko mutikoengan txirrindularitzarekiko grina sortarazten du, eta zer esanik ez Mintxetako etapa Indurainek irabazi izan balu. Txirrindularitza munduko kirolik gogorrena eta sakrifikatuena da eta kontuan izan behar da oso zaila dela puntako txirrindularia izatea; 2.000 mutikoren artetik bat edo bi bakarrik heltzen baitira "figura" izatera. Dena den, gure herrian, Euskal Herri osoan bezala, zaletasuna izugarria da. Elgoibarko lagun Taldean 100 mutiko daude aurten eta kategoria guztiak dauzkagu. Lagun Taldean txirrindulariak hezitzen ditugu baina ez du inporta inoiz figura izatera heltzen ez badira ere. Txirrindulari izan aurretik gizakiak izan daitezenean inportantea, horretan saiatzen gara gu behintzat.

**ASESORIA
GOZAR**

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR



IPINTZA
Pinturak

DEKORATZAILEA

- Pintura eta paperen salmenta
- Mokatak eta sintasolak jartzen ditugu
- Zoru eta hormen apaindurak
- kortinak saldu eta ipini
- kortinen erakusketa Errosario kaleko 7an

Foruen Plaza 4 ☎ 74 04 40

Jarraitzen al duzu Euskal Bizikleta?



JOSEBA ETXEBERRIA
13 urte, ikaslea

Ez, ez dot jarraitzen baina zela Mintxetan bukatzen zan jun ein nitzan. Tourra jarraitzen dot baina beste guztiak ez. Nik usten dot Scartin-ek irabaziko dabala.



CARLOS MUGERZA
33 urte, komertziala

Bai, Tourra, Girua... danak, bata bestian segidan. Etapa bat Elgoibarren amaitxu zanez askoz emozio gehixokin, Mintxetatik zuzenian. Irabazteko Indurain da nere favoritua.



M. CRISTINA DAVID
66 urte, etxeoandrea

Ez, Mintxetara umeengatik joan ginen, autografoak eskatu nahi zituztela eta. Kirola ez dut jarraitzen, nahikoa lan daukagu etxean bestela ere.



MIREN FRAILE
18 urte, ikaslea

Nik ez dot segitzen, sekula, ez Euskal Bizikletia ez beste ezer. Mintxetan egon ginan ambientia ikus-tiarren baina ez beste ezeretatik, ez Indurain ez beste inor ikusteko.



LOLI GAZTELU

55 urte, etxeoandrea

Telebisiuan jarraitzen dot, gustatzen jata. Aurten nola Elgoibarren izan dan ambiente gehixo egon da. Marino Lejarreta ikusi gendun eta telebisiuan baino askoz politxaua da.



J. MIGUEL FERNANDEZ

45 urte, 3. mailako ofiziala

Bai, etapak ikusiz, sailkapena nola dagoen irakurriz.. Aurten, gainera, berezia izan da Mintxetan bertan zuzenean ikusteko aukera izan genuelako. Nere favoritua Indurain da.

okindegia eta gozotegia

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR

MIREN
arraindegia

Santa Ana
74 34 49
ELGOIBAR

RAIKS
KAFETEGIA
74 42 65

Maria Urizar

ileapaindegia
eta solariuma
Errosario 9-1 ezk.
☎ 74 44 89 ELGOIBAR

■ Itxaropena abesbatzak Bergaran abestuko du

Elgoibarko Itxaropena abesbatzak Bergaran izango den Gipuzkoako Abesbatzen XXX. Jaialdian parte hartuko du datorren ekainaren 1ean, larunbata. Nerea Ugarte azpeitiarraren zuzendaritzapean, kantu klasikoak ezezik, gaurkoak ere abestuko dituzte. Kontzertua gaueko 9etan hasiko da Bergarako Santa Marina parrokan.

■ Bertso afaria Kimetz elkarteak antolatuta

Datorren ostiralean, hilak 24, bertso-afaria izango da Kimetz elkarteak antolatuta eta ez HBk, pasa den aste-ko BARRENen esan genuen bezala. Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Gorka Ojanguren eta Gorka Azkarteren bertso jardunaren bueltan izango den afarira joateko txartelak 1.500 pta.ren truke eskura daitezke Jai-Alai, Usoa, Oiz-Mendi, Orbea, Txuri-Beltz eta Karobi tabernetan.



Udal Euskaltegikoek

argazki hau ekarri digute. Euskaltegiko ikasleak dira eta Hondarribiko Juan Sebastian Elkano barnetegian atera zuten erretratu hau. Apirilaren 27an eta 28an bi egunetako egonaldia egin zuten euskara lantzeko asmoz eta 5. 6. eta 8. urratsetako ikasleak dira.



Danobat-eko sortzaileei omenaldia

Danobat Kooperatiba sortu zutenen artetik azken kidea jubilatzen zela-eta, 60 urte bete berri dituen Lazaro Astigarraga, Danobat-ekoek omenaldia egin zieten sortzaileei joan den ostegunean. Gaur egungo Danobat Kooperatiba 1969an bi enpresaren batuketatik jaio zen, Eguzki eta Danobat. Danobat-eko 16 fundatzaileen artetik, 4 izan ziren omenaldi-ekitaldian, eta Eguzkiko 17 sortzaileen artetik, 13 lagun. Omenaldi ekitaldien artean hildako bazkideen oroi-

menezko meza izan zuten Loiolako Basilikan eta lagun arteko bazkaria ondoren. Ospakizunean J. I. Aizpuru Batzorde Erretoreko presidentek, Anton Etxeberria Grupo Danobat-eko gerenteak eta Danobat-eko gerentea den Agustin Aranbarrik parte hartu zuten besteak beste. Sortzaileek oroigarriak jaso zituzten bai eta hauen ezkontideek ere. Gaur egun 400 lanpostutik gora dituen Danobatekoen esker-ona adierazi zitzaizkien sortzaileei omenaldian.



Galiza Etxeak antolatutako Semana Das Letras Galegas jaiak joan den igandean amaitu ziren. Zapatuko euri zaparradek Urasandiko plazan egin ziren ekitaldiak zertxobait desitxuratu bazituen ere, ondo pasatzeko arrazoirik ez zen falta izan asteburuan. Egunez Galiziako gaitajole eta dantzariak aritu ziren herriko kaleak alaitzen eta gaez berbenak izan ziren Urasandiko plazan.

Pila kontenedoreak jarri ditu Mankomunitateak

Deba Beheko Mankomunitateak pila arruntak (botoidunak ez) jasotzeko kontenedoreak jarri ditu. Eusko Jaurlaritzak emandako 80 ontzi, kolore horikoak eta buzoi txiki baten neurrikoak, bailara osoan jarriko dira poliki-poliki. Elgoibari dozena inguru kontenedore dagozkio. Iragan den aste honetan lehenengoak jarri dira eta gainontzekoak datorren astean zehar jarriko dira. Kontenedorean bertan dagoen pegatina batek zer motatako pilak bota daitezkeen zehazten du. Botoi formako pilak Gurutze Gorriak jasotzen jarraituko du baina gainontzekoak, pila laukiak eta zilindro formakoak, hau da, salinoak eta alkalinoak izango dira kontenedoretara bota ahal izango direnak. Mankomunitateko iturrien arabera, kartoia eta paperaren proiektuaren barruan dago pilen bir-

ziklaia. Hortaz, kartoia jasotzeaz bat, pilen ontzia betetzen den heinean hustu egingo dira. Pilak jaso ondoren biltegi batean gordeko dira. Hurrengo pausoa hauek tratatzea izango da. Pila kopuru handi bat biltzen denean Asuako "Recypilas" izeneko enpresara eramango dira,

han tratamendu egokia jaso dezaten. Material kutsakorra kendu ondoren, geratzen den material baliagarria birziklatu egingo da. Mankomunitateak pilen tratamenduaren kostuari egin beharko dio aurre, kostua zenbatekoa izango den ikusteko dagoen arren.



Intsumituak "hotz-greba"n, hau da, manta batekin bakarrik estalita, protesta ekintzan irten ziren iragan den larunbat goizean kode penal berriak ezartzen dizkien zigor zibilen aurka. "Kode penal berriak narru gorritan uzten gaitu" lemapean, ostiraletik zapatara bitarteko gaua Udaletxean entzerratuta pasatu ondoren kartelak pegatu eta inprimakiak banatu zituzten kalean herritarren begirada harrizkoen artean. Antimilien esanetan, "hitzaldira jende gutxi agertu zen, gonbidatuta zeuden betiko alderdi politikoen hutsunea igarri zelarik". Haurren jolasen antolakuntza "primerakoa izan zen eta Zuhaitz Astialdi taldekoen laguntza estimatzen dugu. Bittor Aiaperen kontzertuan gurasoak eta haurrak oso pozik gertatu ziren bai eta Allnighters gasteiztarren blus kontzertua entzuten egon ziren guztiak ere".

■ Zazpiki irriaren bilera zapatuan

Larunbatean, hilak 25, Zazpiki irriak ohiko bilera egingo du. Goizeko 11,30etarako jarrita dute hasiera ordua eta bilera-lekua Zazpiki irriaren lokala izango da. Irratzaletu guztiei bilerara joan daitezten dei egiten zaie.

■ Kuadrilen Eguna eta bazkaria Trinitate jaietan

Aurtengo Trinitate jaiak prestatzeko sortu den gazteen batzordeak Elgoibarko koadrilen eguna antolatzea erabaki du. Hortaz, ekainaren 1ean, larunbata, Kuadrilen Eguna ospatuko da. Txiki Egunaren antzera, koadrilak protagonista bihurtu eta asmoa egun guztia kalean pasatzea da. Eguerdian trikitilariekin bazkaria izango da Plaza Handian 500 pta.ren truke. Bazkarira joateko Kultur Etxean izena eman behar da hilaren 24a baino lehen Tel: 74 21 58.

Mari Ecenarro:

“Antzerkia herriko kultura da”

57 urteko emakume elgoibartar hau dendari eta etxeakoandre lanetan aritu izan da. Baina gure artera ekarri izanaren arrazoia, antzerkiarekiko duen zaletasuna da. Gaztetatik, “Acción Católica”ren inguruan

sortutako antzerki talde batean hasi eta duela 4 urte azken antzezlanean parte hartu zuen arte ez da geldirik egon. Izan ere, antzerkia ezezik pintura, dantza eta kultur arloko beste zenbait arlo ere jorratu zituen gazte denboran.

- Kontaiguzu kultur munduan emandako lehen pausoak.

- Kulturarekiko zaletasuna norberak sentitzen duen zerbait da. Niri umetatik gustatu izan zait, batez ere antzerkia. Eskolan antzeztoki bat zegoen eta txiki-txikitatik egiten genituen antzelanak. Ondoren “Acción Católica”ren inguruan mugitzen hasi ginen: batzuk dantza egiten zuten, beste batzuk antzerkia... Gero talde bat sortu genuen. Niretzako antzerkia herriko kultura da, denok baitauek bertara iristeko aukera errazagoa.

- Zure gazte denboran nolako kultur ekitaldiak antolatzen ziren hemen?

- Ongarri elkarte zegoen. Nik antzerki talde bat sortu nahi nuen eta horretarako elkarte baten partaide izan beharra zegoen, beraz, horregatik sartu nintzen bertan. Elizak ere asko lagundu zuen. Pintura lehiaketa ere egon ohi zen eta bertan ere parte hartu nuen. Zaletasun hau aititaren-gandik datorkidala esan daiteke. Koroa ere uste dut bazegoela eta Pilarreko Colegiora ere joaten ginen dantza soltea eta aureskua ikastera.



“Jesusen pasioa ere antzeztu genuen, Ostegun Santuan erdaraz eta Ostiralean euskaraz”

- Noiz sartu zinen antzerki munduan?

- Zaletasun bat duzue-nan, beti saiatzen zara gustu berdina dituen jendea bilatzen. Guk oso talde jator bat sortu genuen. Gogoan daukat, garai hartan Dimas Gilek laburmetraiak egiten zituen eta makiladore bezala oso ezaguna zen herrian. Berak antzerki bat zegoen bakoitzean aktoreak margotzen laguntzen zigun. Entzaiuak, utzitako

pisu baten egiten genituen, ez zitzaigun bururatu ere egin Udaletxeari lokala eskatzerik. Hamar bat lagun ginen taldean eta obrarako gehiago behar baziren gehiago elkartzen ginen.

- Zenbat obra antzeztu zenituzten?

- Askok ez. Ezkondu eta kanpora joan nintzen, baina itzuli nintzenean beste talde bat sortu genuen, orduan hasi ginen euskaraz antzezten. Nik ez

nuen obrarik idatzi, baina parte hartu nuen guztietan izan nintzen zuzendari. Jesusen Pasioa ere antzeztu genuen, Ostegun Santuan erdaraz eta Ostiralean euskaraz, bi urtetan.

- Zer lantzen zenuten ?

- Lehen hitzari balore gehiago ematen zitzaion, ahoskerari, baita testuei ere, niretzako hitzak zeresan handia dauka. Orain garrantzi asko dauka gorputz espresioak ere.

- Gaur egun zein erlazio daukazu antzerkilaritza-rekin?

- Ez daukat inongo harremanik. Noizean behin joan ohi naiz obraren bat ikustera baina oso gutxi jarraitzen dut.

- Orain antzerkiren batean parte hartzeko eskatuko balizute zer erantzungo zenuke?

- Entzaiuek lotura handia eskatzen dute. Obraren eta egin nezakeen lanaren arabera, pentsatu egin beharko nuke.

- Besterik?

- Antzerki tailer bat sortzeko asmoa ez zen aurrera eramanez. Pena hori daukat, tailer hori sortu ez izana. Gazteei erakutsi egin behar zaie, gustatzen zaien edo ez jakiteko.

IRATI AGIRREAZALDEGI

kiliBARREN

Mendaroko gehigarria

Maiatzaren 24a

29. zkia.



Filabete honetako argazkia Juanita Iriondok lagatakoa da. Zein urtetakoa den zehatz ez dakigu baina bere ustez orain dela 30 bat urte atera zuten erretratua Don Cesareo maisuak eta Mendaroko mutilek. Don Cesareo maisua urte askoan egon zen Mendaron irakasle eta denentzat da aski ezaguna.

Goian ezkerretik hasita: Pedro Manuel Mendikute, Agustin Rodriguez, Korta (†), Jose Horrillo, Ignacio Larrañaga, Pablo Agorria, Jose Manuel Uria (†), Ignacio Arriola, Xabier Jauregi, Manuel Elorza, Cesareo Moreno (†), Niko Roteta (atzean), Jabier Zabala, Angel Cobos, Jabier Santamaria, Jesus Mendikute, Jabier Garate, Juan Antonio Garate, Julian

Arriola, Jabier Iriondo (†), Jose Luis Diez, Evaristo (Larraskanda) eta Jose Domingo Zulaika.

Erdiko ilaran ezkerretik hasita: Luis Fernando Iriondo, Jose Mari Mugerza, Agustin Urbieta, Jose Luis Zulaika, Ramon Iriondo, Juan Antonio Mendikute, Pedro Migel Jurado, Vicente Olazabal, Juan Luis Garate, Juan Antonio Zubiaurre, Ramon Carrascosa (†), Paulino Zabaleta, Jokin Longarte, Pepe Jurado, Pedro Jose Iriondo, Rafael Carrillo eta Juan Angel Salegi.

Azpian, ezkerretik: Jose Antonio Salegi, Diego Jurado, Santi Urain, Iñaki Lazkano, Patxi Mugerza, Jabier Larrañaga, Juanjo Mendikute, Jose Ramon Ansola, Antonio Ansola (†), Jesus Garazo, Manolo, Vicente Esteban, Antxon Albizu, Jesus Larrañaga, Jesus Iturria, Jeronimo Ansola eta Sopo Sierra.

TEXTIL HOGAR LAGUNAK

Jantzi zure etxea diseinu berriekin
DEITU KONPROMEZURIK GABE!

Olaso kalea 54 Tel: 74 44 57 ELGOIBAR

Mendaroko TAXIA

Kontxi Urain

Zenbaki berria

☎ 907 57 57 28



Etor kizuneko proiektua

Ekain koba aski ezaguna dugu gure bailaran. Guztiok dakigu kobetako margoek balio handia dutela. Hala ere, gaur egun nahiko egoera txarrean aurkitzen dira kobak. Hori dela eta, Astigarribia inguruan aipatu margoen erreprodukzioa egiten ari dira. Nolabait, Ekain-eko margoen ikusgarritasuna bertara eraman nahi da, orijinalak ahalik eta hobekien mantenduz eta, era berean, bisitariak haien edertasunaz gozatzeko aukera izan dezaten Astigarribiako erreprodukzioan.

Ekain koben inguruko proiektua ez da hor amaitzen. Izan ere, DEBEGESA, Elgoibar, Mutriku, Deba eta Mendaroko Udalak lanean ari dira herri hauek turismoari dagokionean zer eskain dezaketen finkatu eta aipatu proiektuan sartzeko asmoz. Izan ere, helburua, bailaran turismoa bultzatuz, gunea ezagutaraztea litzateke, Ekain kobak aprobetxatuz, bisitak beste herrietara ere

inguratuz. Honek guztiak, logikoki, lanpostuak sortuzko lituzke.

Herri bakoitzak bere lilura du eta gauza bat edo beste eskain dezake. Horretarako, arestian aipatu ditugun herrietan lantaldeak sortu dira herri bakoitzak turismoari begira zer eskain dezakeen eztabaidatzeko. Mendaron, hain zuzen, lantaldea osatuta dago eta kide batekin izan gara gai honen ingurukoak azaldu eta gehiago jakin dezagun.

AMAGOIA ZABALA:

“Turismo
ekologikoa
bultzatu nahi
degu”



- Kontaiguzu, zer da “lantalde” delako hori?

- Herri guztian zihar papelak ipini zituzten Ekain II proiektuan sartzeko prest zeudenei dei eginez lan talde bat osatzeko. Pertsona batzuk elkartu eta Mendarok eskain dezakeenaren inguruan hitzegiten hasi ginan.

- Zein da zuen betekizuna?

- Lantaldea osatu genuenean, lehen lana Ekain II proiektuari buruzko informazioa jasotzea izan zen. Bigarren bilera batean bakoitzak Mendarok turismorako zer eskain dezakeen azaldu zuen, ideia pila bat bota genituen. Azkenik, bakoitzak indibidualki ideia horien balorapen bat aurkeztu genuen Udaletxean eta handik ideia bakarra irten da.

- Zein izan ziren ideia horiek?

- Ideia mordoaz azaldu

ziren: Arno aldea, Kilimoi bailara, txokolateak... Mendarok gauza asko eskain di-tzake baina oraindik ideiak bakarrik daude, horiek finkatzea zaila da.

- Zein dira zuen ideiak?

- Lehenik eta behin Mendarori hiritxasuna ematia eta hemen inguruko gauzak, Astigarribixako erreprodukzioa aprobe-txatuz, jendiari ezagutaraztia. Baina turismo ekologiko baten bitartez, ez deguna nahi da hona etorri eta dena apurtzea. Naturarekin erlazionatzeko turismo mota bat nahi dugu eta turismo honek lanpostuak ekarriko balitu askoz ere hobeto.

- Zergatik sartu zara lan talde honetan?

- Alde batetik, Mendaro maitxe dotelako eta herrixak bizitxasuna eukitzia nahi dotelako. Bestaldetik, uste dudalako lanpostu eza dagoela eta turismo honek lanpostuak ekar ditzakeela. Gainera naturarekin harmonian bizitzen asko ikas daiteke baina naturari errespetu handia gordez.

Zer eskaini diezaioke Mendarok turismoari?

Katherine Muñoz

31 urte, etxekoandrea

Neri iruditzen zait, mendia gustatzen zaionari badaukala nora joan. Mendi ugari dago inguruan. Ermita ugari ere badago ikusteko. Mendaroko txokolateak egiten diren fabrika ere hor daukagu. Turismorako toki asko daude.



Daniel Arreitunandia

79 urte, jubilatua

Eukiko ez deu ba! Txokolata printzipala. Nik kanpoko jendiari Arno aldia eskainiko nioke. Baita Atxuri ere. Mendarok gauza asko dazka eskain-tzeko; ezin danak aipatu.



Antonio Segundo

42 urte, langilea

Nik usten dut eskain di-tzakeela gauzak. Hemen dagoen lasaitasuna adibidez. Paseo oso politak daude lasai-lasai ibiltzeko, adibidez, Aran Erreka, Santa Kruz, Arno, In-tsusai aldea... Gainera onena da gertu gelditzen dela.



Enetz Ezenarro

18 urte, ikaslea

Ez zait ondo iruditzen Mendaro turistiko jartzea eta jende asko etortzea. Kilimoi bailara oso polita da, baina parke natural bezela jartzekotan, ez da komeni hemen jende asko ibiltzea. Mendarok gauza polit asko dauzka eskain-tzeko baina norberak bilatu dezala nahi badu.

Iñurrategi anaien diapositiba emanaldia

• Kanchenjunga mendiaren gailurra egin berri duten Felix eta Alberto Iñurrategi diapositiba emanaldia eskainiko dute ekainaren 14an Goñatin. Emanaldia gaueko 10,30etan hasiko da eta bertan, Cho-Oyu eta Lothse mendiko diapositibak emateaz gain, azken espedizioaren berri ere izango da.

Umeen euskal jaiak

• Mendaroko Gazteak dantza taldeak Udalaren laguntzaz Umeen Euskal Jaia antolatu du ekainaren 30ean. Guztira 180 dantzari izango dira gure artean. Beraz, herriko jendearen laguntza eskatzen da dantzari haueri etxeetan bazkaria emateko. Zerrendak egun gutxi barru zabalduko dira ohiko tokietan.

Elkarri bazkide bila

• Elkarri bazkide kanpainari ekin dio. Datorren astean buzoietan sartuko dira bazkide txartelak. Horietan hileko 1.300 pta., 2.000 pta., 5.000 pta. edo 10.000 pta.ko laguntza daude aukeran. Bakoitzak zein kopururekin laguntzeko prest dagoen azaldu beharko du eta bertan jartzen duen helbidera bidali.

Eskubaloi trofeoa

• Datorren larunbatean, ekainak 1, San Jose Ikastolako patioan Eskubaloi Txapelketa jokatu da. Goizeko 10,30etan Elgoibar eta Arrate Amaña ekipoek jokatu dute kadete mailako neskek. 12ak aldera, berriz, Elgoibar-Arrate Amañaren arteko partidua izango da, kadete mailan baita ere baina oraingo hau mutilen txanda izanik.



Mendarozabaleko Trinitate jaiak

Ekainaren 1a eta 3aren artean ospatuko dira Trinitate jaiak Mendarozabalen. Ekainaren 1ean, larunbata, kanpai soinu eta txafleguek emango die hasiera arratsaldeko 3etan jaiari. Domekan, goizeko 9etan Mendaroko txistularien kalejira izango da eta 11,30etan Meza nagusia Trinitateko ermitan. Amaieran Mendaroko abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan bertan eta ondoren Txistulariak eta Ospas eta Sabin trikitilariak arituko dira. 12,30ak

aldera Herri Kirolen txanda izango da. Ekainaren 3an, astelehena, goizeko 11etan meza izango da Trinidaden eta 12etan Ikastolako haurren bertso saioa. Ondoren, Laja eta Landakanda trikitilariekin hamaiketako umoretsua egongo da. Arratsaldeko 7etan, berriz, urteroko makalau jana egingo da Aizpe elkartean eta jaiari bukaera emateko, gaueko 10,30etan Erromeria bikaina Trinidadeko plazan.



Antzerki emanaldia

Euskara batzordeak antolatuta, ekainaren 8an, Debako Goaz antzerki taldeak "Larrialdiak" obra eskainiko du Goñati pilotalekuan. Antzezlan gaueko 10,30etan izango da. Goaz antzerki taldeko bost kide mendarotarrak dira.

Sagrario Delgado

Dominguez
arrandegikoa



- **Bixigua ala txuleta?** ▶ Bixigua.
- **Makailua pil-pilean ala dantzarako?** ▶ Pil-pilean.
Dantzarako sasoi pasatu zait eta.
- **Salmoneteak plantxan ala arropak plantxatu?**
▶ Salmoneteak plantxan, etxeko plantxa egitea ez dut atsegin.
- **Zein arrainekin konkistatuko zenuke gizonetzko bat?**
▶ Meroarekin, arrain fina delako.
- **Harrapatu duzun azken "legatza"?** ▶ Ez dut inoiz harrapatu.
- **Zein egoera egin zaizu txangurroaren eskola bezain gogorra?**
▶ Pertsona maite baten galera.
- **Txipiroti tinta bezain beltz ba al dago zerbait Elgoibarren?**
▶ Bai, langabeziaren egoera.
- **Saltsa guztietako perejila al zara?** ▶ Ez, inolaz ere ez.
- **Zer gordeko zenuke ostra baten eskolaren barnean?** ▶ Beti dago gordetzeko sekreturen bat, baina sekretua denez ezin dut esan.
- **Noiz jan zenituen azkenekoz angulak?**
▶ Gabonetan uste dut, ado agian marxoan, ez nago horren ziur.
- **Zure bizitzako zein egun izan da antxoa freskoak bezain disdiratsua?** ▶ Nire ezkontza eguna edo nire alaba jaio zenekoa.
- **Txikitatik eztarrian trabaturik gelditu zaizun hezurra?**
▶ Gustatzen ez zaizkidan gauza asko egon arren, hauek irenstea beste irtenbiderik ez dago.
- **Zein olagarroren besoetan egon nahi zenuke?**
▶ Norbait esatekotan, Richard Geren besoetan.
- **Zein da zure itsas-izarra?** ▶ Nire alaba.
- **Zein tokitan geratuko zinateke lapa bat bezala itsatsita?**
▶ Laredon, asko gustatzen zaidan toki bat da.
- **"Txitxarro" ala Guass?** ▶ Lehen Txitxarro, orain ez bata ez bestea.
- **Delfina bazina?**
▶ Ez litzaidake gustatuko, itsasoari beldur piska bat baitiot.
- **Gaur gaueko afarirako arrain bat?** ▶ Bixigua bera.

EUSKAL BIZIKLETA

DOINUA:

Aita izena

Denon artean "Subida a Arrate" deiturikoa lehenik "Giroa" ere hasi den arren gurekin dugu iadanik. Eguasteneko etapa hura hemen bukatu zelarik, denok dakigu nork garaitu dun, ez dago esan beharrik. Kalitatea sobera dela beste ezer ez diot nik (Bis)

Indurain, Zulle edo Rominger beste batzuen artean gorputz osoa topera jartzen "Tourra" hasi bitartean. Apaltasunez martxan jarri zen itzuli hau behin batean ta partaideen kalitatea handia da azkenean; ea guztiok elkar ikusten dugun behintzat igandean (Bis)



ARNAITZ GORRITI





**VICTORIA
IRAEGUI**

MASAI TERAPEUTIKOA ETA DEPORTIBOA

Errosario 34, 1 eskuma - Tel: 74 07 70 - ELGOIBAR

Aurrez deitu!!

ORDUTEGIA:

- Goizez: 10 - 13 ●
- Arratsaldez: 4,30 - 7 ●

Gizarte Laguntzaile oposaketak egin dira

Amagoia Ruiz De Gaunak atera ditu Ongizate Sailerako egin berri diren oposaketak. Lehen ere hiru urtez Gizarte Laguntzaile izan zen Amagoia Udaletxeko Ongizate sailean. Oposaketen deialdia egin eta 60 pertsonak eman zuten izena. Horietatik 28k egin behar zuten froga baina 17 bakarrik aurkeztu ziren. 8k gainditu zuten aipatu froga. Azterketaren bigarren zatia temarioari buruzko galderek osatzen zuten. 42 pertsonari deitu zitzairen arren, horietatik 14 aurkeztu ziren eta hauetatik hiru sailkatu. Azkenik, azterketa praktikoa egin behar izan zuten hautagaiek. Kasu konkretu bat jarri zien epaimahaiak eta horren aurrean zer egingo luketen adierazi behar izan zuten. Hiru pertsonen artean Amagoia gailendu zen eta berak eskuratu du postua: funtzionari plaza fijo.

Lana bilatzeko tailer ikastaroa

“Lana bilatzeko tailerra” antolatu dute DEBEGESAK eta eskualdeko udalek. Ikastaroa emakumeei zuzenduta egongo da eta Deban izango da ekainaren 3a eta uztailaren 12a bitartean. 16 eta 25 urte bitarteko emakume langabetu, egoera txarrean lan egin edo ikasketak utzi eta profesionalki etorkizunik ikusten ez dutenentzat zuzendutako ikastaroa da. Aipatu ikastaroa NOW programa europarraren barruan sartzen da, emakumeek lan munduan aukera berdinak izan dezaten bultzatu dena. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia eta Seguritate Sozialeko eta Europako Fondo Sozialaren laguntza du. Interesatuak izena eman dezakete Udaletxeko Ongizate Sailean maiatzaren 30a baino lehen.

Alderdi bakoitzak 40.000 pta. jasotzen ditu hilero

Guztira, Elgoibarren 17 zinegotzi daude: 7 ditu EAJk, 3na EA eta HBk, 2 PSE-EEK, eta bana IU-EB eta PPk. Badakigu batzorde ezberdinak daudela, plenoak hilean behin izaten direla... Eta horietara joan behar izaten dutela zinegotziek herriaren martxari buruzko gaiak eztabaidatzeko. Baina, ba al dakigu zenbateko dirusaria jasotzen duten?

Alkatea Udaletxeko langileen plantilan sartuta dago. Bere soldata gordina hileko 444.838 pta.koa da.


Udaletxean dagoen alderdi politikoko bakoitzak 40.000 pta. jasotzen ditu hileko. Zinegotzi bakoitzeko beste 10.000 pta. eskuratzen ditu alderdiak hilero. Plenoetara joateagatik (hilean behin) zinegotzi bakoitzak 5.000 pta. jaso-tzen ditu eta beste horrenbeste Gobernu Batzordera joateagatik (aste-an behin). Horrez gain, Komisioak ere badaude (astero elkartzen dira eta sail bakoitzeko komisio bana dago, ongizate, kultura, esukera, hazienda, hirigintza eta barne saila). Horietan parte hartzeagatik, Komisio buruak 5.000 pta. eskuratzen ditu eta gainontzeko zinegot-

ziek 3.000 pta.

Jakin dugunez, diru hauek alderdi bakoitzaren kontuan sartzen dira. EAJk, alderdiaren esku uzten du dirua. Halere, behin edo behin diruarekin zinegotzientzat bidaia bat antolatu izan da. EAK, berriz, %30a alderdiaren esku utzi eta gainontzeko %70a zinego-tzien poltsikora joaten da. PPk antzekoa egiten du, kopuru osotik 15.000 pta. alderdiak hartu eta beste guztia geratzen da zinegotziarentzat dietak ordaintzen baitizkio alderdiak”. PSE-EEren kasuan, berriz, %10 eskuratzen dute zinegotziek. gainontzeko %90a, alderdiaren kontu korrontean geratzen da. Nieves Catarin PSEko zinegotziak adierazi digunez, “Urasandiko lokala ordaintzeko erabiltzen da dirua”. HBk jasotzen duen diruaren %100a alderdiaren esku geratzen da.

Nola saritzen da zinegotzien lana

- Alderdi bakoitzak 40.000 pta. hileko
- Zinegotzi bakoitzeko 10.000 pta. hileko
- Plenoetara joateagatik (hilean behin) ... 5.000 pta.
- Gobernu Batzordeetara (astero) 5.000 pta.
- Komisioetara joateagatik (astero, 6 komisio) (Batzordeburuak) 5.000 pta (zinegotziek) 3.000 pta.
- Alkatearen soldata gordina 444.838 pta.



Apraiz baserria


■ Etxe barruan aldaketa asko izan da. Burdinola itxi ondoren etxea erre edo hondatu egin zela eta berritzerakoan ustezko olako habeak eta zepak erabili zituzten. Aldaketa hau 1741 urte inguruan gertatu zen.

■ Apraiz XV. mendetik agertzen da dokumentuetan. Ecenarro jaunak burdinola txikia edo "tiradera" zela dio, hortik dator "Olatxo" izena. 1442an kabildoa osatzen duten ofizial eta olajabeen artean Santxo Perez Apratiz ageri badira ere, Pedro Perez Arriola da ola honen aurrean dagoena 1470ko hamarkadan.

■ Pedro Perezek Karkizano "Yuso" eta Lasalde olategietako ugazabek bere aurka jarritako auzi batean esku hartu zuen. Karkizano eta Lasalde Arriola salatu zuten gaztelako kontseiluaren aurrean honek ez zuelako nahikoa diru Apatrizeko olagatik eskatzen zioten fidantza ordaintzeko. Horregatik hainbat eskubide ukatzen zizkieten Pedrori. Pedrok, halare, irmoki defendatu zituen bere eskubideak bailarako sei burdinolak baldintza berdinetan zeudela esanaz, bai burdinkia ekartzeko bai burdina lantzeko, herri-mendien aprobetxamenduaz gozatzeko eta arragoetan burdinkia erretzeko.

■ Apatriz burdinola txikia edo tiradera bezala XVI. eta XVII. mendeetan zehar martxan egon zen. Apatriz nagusia eta txikia baserriekin batera Elgoibarko arriolarren jabetza izan zen. Aldi berean Karkizano "Suso" burdinolaren hiru laurdenaren jabeak zirelarik.

PELLO ARRIETA



Adelaida Iriondo Oiarzabal (1902-1972)



- 1902ko abenduaren 16an jaio zen. Familiako neska bakarra zen, lau anairen artean. Sanson familian hazitakoa.
- Elgoibarko Futbol Balompie Club-eko ekipoak zer emaitza egiten zuen jakiteko zain egoten zen, bere senar Ricardok han jokatzeko baitzuen.
- "Porru"neko dendan saltzen zituen janariak eta ostantzeko beste gauza asko. Atsedena hartzen zuenean, jostun lanetan jarduten zuen, abarketak josten Errosarioko Amabirjinaren aurrean, orduan han zegoelako denda.
- Sei seme-alaba euki zituen. Apala eta alaia zen eta bezero asko egin zituen.
- Azken urteetan lagunekin karta-jokoan egiten zuen dendan eta loterian jokatzeko ere gogoko izan zuen.
- 1972ko otsailaren 28an hil zen.

JUANITO GOROSTIZA




ZURE HAURARENTZAKO
PRODUKTUEN BANATZAILEA
EUSKAL HERRIAN:

- Kotxeak eta sehaskak

BAMBINO

Estazio kalea 3
☎ 10 69 93
EIBAR

DURANGO: ☎ 681 14 83 / 620 35 72 - BILBO: ☎ 444 71 04



PEDRO PEREZ BERISTAIN

San Roke, 30 behe. ☎ 74 36 52 - 74 27 89

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA

KIROL

EMAITZAK

Futbola

Elgoibar 4 - Aloñamendi 1 (Neskak)
 Real Unión 1 - Elgoibar 2 (Kadeteak)
 D. Bosco 1 - Elgoibar 1 (Jubenilak)
 Elgoibar 1 - Real Unión 1 (Infantilak)
 Gernika 4 - Haundi 1

Areto Futbola

Moulinex 4 - Elgoibar 4 (1. maila)
 H. Extremeño 0 - Elgoibar 2 (2. maila)

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 25
 17,00 Haundi - Hoberena (Igoera fasea)
 18,45 Eibartarrak - Oiartzun (Neskak)
 Igandea, 26
 10,30 Beti Sutan - Mundaiz (2. erreg.)
 12,30 Elgoibar - Zumaiako (Infantilak)
 14,15 Gazteak - Danena (Jubenilak)
 17,00 Elgoibar - Martutene (Jubenilak)

Atletismoa, Mintxetan

Larunbata, 25
 10,00 Eskolarteko Atletismo lasterketak



Francisco Pinilla:

"Segundo batean 20 m.ko aldea egon daiteke"

■ **Konpetizioan ari zara gaur egun?** - Bai, Eibarko Klubean nago eta taldekako lasterketetan parte hartzen dut ekipoari laguntzarren batez ere. Badira pare bat urte bakarka korritzen ez dudala.


■ **Lasterketa horiei begira entrenatzen duzu?** - Lehen, ekipoari begira ezezik, konpetizioari begira ere entrenatzen nuen; 100m eta 200m.-etarako. Gaur egun, konpetizioa baino lehenago, lesiorik ez edukitzeko, pistan aritzen naiz.

■ **Entrenamenduak zure kontu?** - Konpetizio indibiduala uzteko arrazoiatariko bat hori izan da. Lehen Eibarren talde handi xamar bat zegoen entrenatzeko. Orain gainera, lanean nagoenez berandu irteten naiz... gauza askoren batuketa da.

■ **Atletismoan noiz arte?** - Beteranoetan korritzekoan, maila onarekin. Bestela, ez nuke jarraituko.

■ **Serie motzetako korrikalaria zara.** - Bai, 60m. pista estaliko sasoian, eta apiriletik aurrera, aire librean, 100m. eta 200m. Edadearekin abiadura galtzen zoazenez eta erresistentzia irabazten, 400m. ere korritzen ditut. 800 m. korritzen duenak 1.500 korritzen amaitzen du, 400koak 800ean...

■ **Zein dira zure markarik onenak?** - 60 metrotan 7'17 elektrikoa; 100 metro-



tan 11'00. 200 metrotan 22'94 eta markarik onena edo niri behintzat gehien kostatu zaidana 400 metrokoa da: 50'52.

■ **Puntako korrikalariak zuk baino segundo bat gutxiagotan egingen dituzte 100 metroak.** - Bai, baina 100 metrotan segundo bat asko da, ia 10 metroko aldea dago. Hala ere, oso ondo daude marka hauek. Baina Gipuzkoan oso zaila da nabarmentzea belozista on asko baitaude.

■ **Beste kirolen batengatik sakrifikatuko al zinateke atletismoarengatik beste?** - Ez dut uste. Esku pilotan eta futbolean ere aritu nintzen baina atletismoa nuen gogoko. 17 urterekin hasi nintzen, gazteago has-tea hobe baina oso pozik nago egin dudanarekin. Gipuzkoako txapeldu-nordea izan eta Euskadiko txapeldu-nordea ere 400 metrotan.

■ **Atletismoaren gabeziarik nabarmenena?**

- Eibarren entrenatzaile onak daudenez korrikalari onak ateratzen dira baina Elgoibarraren ondo prestatutako entrenatzaileak falta dira. Mintxetarekin agian...

- Adina: 27
- Kirolari bat: Magic Johnson
- Korrika egiteko leku bat? Mintxeta
- Kirol etxe bat: Nike



OIERKI IGONGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segiduan konponduko dizugu igongailua

(943) 11 35 15 • ABERIAK (943) 11 35 15
 Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR



CRISTALERIA ELGOIBARRESA C. B.

Bidriera artistikoak
 Obra komertzialak

Urasandi 12 behea
 Tel-Fax: 74 04 89

PLAY-OFFa

Zaletuen animoen bila dabil Haundia

Liga amaitu da eta Haundia laugarren geratu da azken sailkapenean. Postu horri esker, bigarren B mailara igotzeko Play-off deritzona edo iguera fasea jokatzeko aukera izango du. Sei partidu izango dira, guztiak garrantzitsuak baina Haundiko jokalariai entrenatzen dituen Hormaetxeak esan digun bezala, "lehen partidua irabaztea funtsezkoa izango da morala sendo izateko".



Moralki sendo omen dago Haundia play-offaren aurrean.

38 partidu jokatu ondoren Haundiak Liga hasierako helburua lortu du: play-offerako sailkatzea. Lan gogorra egin dute urte osoan zehar, baina agian orain dator parterik zailena. Duela hiru denboraldi Haundiak 2B mailan jokatzen zuen eta beraz, maila hartan jokatu izanaren oroitzapena ez da horren urruna.

Haundiaren arerioak ez dira txarrenak baina onenak ere ez. Haundiren talde berean Zaragoza, Iruñeko Hoberena eta Cantabriako Tanos herriko Tropezón taldeak daude. Taldeko onena Zaragoza taldea da baina sei partiduko ligila batean edozer gerta daiteke.

GELDITZEN DIREN PARTIDUEN EGUTEGIA

Haundi - Hoberena
(Maiatzak 25)

Zaragoza - Haundi
(Ekainak 2)

Haundi - Zaragoza
(Ekainak 9)

Oberena - Haundi
(Ekainak 16)

Tropezón - Haundi
(Ekainak 23)

Haundi - Tropezón
(Ekainak 30)

EUREK DIOTE

MANOLO ESNAOLA

Klubeko presidentea

"Balantzea positiboa da. Gustura gaude tokatu zaigun taldiakin, ez dot uste talde zaila danik. Aha-lerinak ingo doguz bigarren mailara igotzeko. Etxeko partiduak irabazitxa nahikua izango da, partidu bakoitzagatik hiru puntu dialako. Klubak Elgoibarko herriari eskatu nahi dio partiduak ikustera etortzeko. Oso inportantia da 2.era igotzia eta jendian animuak bihar ditzugu. Galtzia lastimia izango litzake".



KIKE HORMAETXEA

Entrenatzailea


"Taldea oso ondo dago, igandean 4 eta 1 galdu arren. Azken fasera begira programazio bat jarraitu dugu. Lesioak "partxeatu" ondoren ondo gaudela uste dut. Talde berdindua da, guk %25eko aukerak ditugu. Zaragoza filiala da eta oso ondo jokatzen dute. Baina Tropezón-en eta Hoberenaren zelaia hondarrezkoak dira eta harri koxkorrez betetakoak eta Zaragozari ez doazkio horrelako zelaia. Gure arma guban dugun sinesmena da. Larunbateko emaitza? Kontua irabaztea da, lehenengo partidua bereziki".



XABIER ALONSO

Kapitaina

"Moral oso haundixakin gaiz. Gure artian igartzen da azkenengo entrenamientuetan jendia gogo gehixokin daola. Guretzat oso zaila izango da kanpua irabaztea baina gure bentajia izan leike eurak ez dabela belar artifizialian jokatu. Taldeko lelena Zaragoza da baina gero edozeinek eman leike sorpresia. Aurreko igoria bizi izan naban eta zoragarria izan zan. Ez badegu irabazten ere pozik gelditxuko gera. Larunbateko emaitza? 4 eta 0 irabazi".



MOTZAK

Eskolarteko atletismoa

Larunbatean, hilak 25, goizeko 10etatik aurrera herriko 3. mailatik 8. mailara bitarteko eskolarteko atletismo lasterketak burutuko dira Mintxetan. Benjaminek 60m, luzera eta altura jauzia egingo dute. Alebinek luzera, 80 m, 200m eta 300m eta infantilek, azkenik, 200m, altura, 600m, 800m. Izen-ematea 9,30etatik aurrera izango da.

Ikas-Dodotis, eskubaloiko finalerdietan

San Bartolome Ikastolako Ikas-Dodotis eskubaloitzaletan eskolarteko txapelketako finalerdia dagokion partidu garrantzitsua jokatuko du Usurbilgo kiroldegian, bihar, larunbata, hilak 25. Zumaiaiko Oiarru ikastolako kontrako partidua irabaziz gero, igandean, hilak 26, finalak jokatuko lituzkete. Bi partiduak irabazten badituzte Gipuzkoako txapeldun izango dira elgoibartarrak.

Ibai txapeldun eskolarteko judoan

Ibai Klubeko ikasleek sei domina eskuratu zituen Gipuzkoako Eskolarteko Alebin eta Infantil txapelketetan. Donostiako Karmelo Balda pilotalekuan jokatu zen txapelketan Ibaik 12 lehiakide aurkeztu zituen, guztiak aurrez sailkatuta zeudelarik. Denen lana ona izan bazen ere, sei judoka igo ziren podium-era. Alebin kategorian Maialen Morak eta Aitor Gabilondok urrezko domina lortu zuten Gipuzkoako txapeldun geratuz eta Zuriñe Polo izan zen txapeldunorde zilarrezko domina jaso. Infantilen artean, berriz, urrea Esther Idiakezek eskuratu zuen eta brontzezkoak Xabi Gonzalez eta Zuhaitz Azpiauren eskutik iritsi ziren Elgoibarrera.

Kirol flashak • Kirol flashak • Kirol flashak



Kandido Txurrukaren ohozez, omenaldi beroa jaso zuten iragan den domekan aizkolari aparta izan zenaren sendikoeak. Argazkian ditugu Txurrukaren alarguna eta familiako kideak eta Euskal Herriko belaunaldi ezberdinetako 18 aizkolari. Kilometroen, Udalaren, Kalamua elkartearen eta Gipuzkoako Federazioaren oroigarriez gain, Gurutze Gorrikoek egindako bideo bat ere jaso zuten senitartekoeak. Bideoa Kandidoren bizitzari buruzko lan sakona da, haren bizitzako unerik inportanteenak jasotzen dituena. Herri kirolei dagokienean, jendea pozik geratu ei zen ikusitakoarekin, gazteak ezezik, ez hain gazteak ere sasoi onean daudela erakutsi baitzuten.



Gipuzkoako Txirrindulari Jubenilen

txapelketako irabazlea Mintxetako helmugara iristen deneko unea jasotzen du argazkiak. Lehen lau sailkatuak lasterketaren azken zatia ihesaldian egin zuten: Galparsoro, Aranaga, Del Rio eta Zubeldia izan ziren lehen lauak, hurrenez hurren. Elgoibarko Lagun Taldeko guztiak parte hartu bazuten ere laupabostek bakarrik lortu zuen lasterketa amaitzea. Lehen elgoibartarrari saria eman zitzaion. Lagun Taldeko Ramon Garcia izan zen.



Antzerki marathoiaren eskutik eta Kilometroen ekitzen barruan, lau antzeztalde ezohiko eskenatokietan lanean ikusteko aukera izan zen zapatu gauean. Otzak, Txuri-Beltz, Malape, Lanbroa eta Kaia tabernetan Txo taldekoek, Jose Mari Carrerek, Kepa Gallego-k eta Peter Roberts-ek, bakoitzak bere saioa eskaini zuen. Roberts-ek bi aldiz antzeztu zuen, Malapen lehenengo eta Lanbroan gero, azken honetan Taun-Taun taldekoen partez. Kilometroetako maskotekin batera, Goenkaleko Anuska eta Carl pertsonaiak batera eta bestera ibili ziren antzerki zirkuituan, lan mordoa izan zutelarik jendea agurtzen eta autografoak sinatzen.



Antzerkia haurrentzat

Deba Behoko Eskolarteko Antzerki Erakusketaren XII. edizioaren barruan, D. Dafoe idazlearen "Robinson Crusoe" lanean oinarritutako izen bereko antzeztalaren emankizuna izango da igandean, hilak 26. 10 urtetik aurrerako haurrei zuzenduriko lan hau *Ados* talde profesionalak taularatuko du arratsaldeko 4,30etatik aurrera Herriko Antzokian. Ikuskizunaren iraupena 50 minutokoa da.



Musikeskolakoen jaialdia

Datorren asteartean, hilak 28, Inazio Bereziartua Musikeskolako ikasleen ikasturte amaierako dantza jaialdia izango da. Sei eta hamaika urte bitarteko neska-mutilek urtean zehar landutako tekniken erakusbide izango den dantza saioa egingo dute, "Ikasleak" izenburua duena. Ikuskizuna arratsaldeko 7,30etan hasiko da Herriko Antzokian.

Artisautza feria aurten Leku-Ederren izango da

Trinitate jaiak gainean dira eta aurten San Antonetako artisautza feria Trinitate jaietan egingo da. Orain arte Plaza Handian kokatzen ziren eskulangileak eta hauen erakuslekuak, baina aurten, ekainaren 2an, haurren tanborrada Plazan izangoenez, artisautza feria Leku-Ederreko parkera aldatzea erabaki du Udalak. Parte hartuko duten artisauen kopurua 25-30 bitartekoa izango da, Euskal Herriko bazter guztietakoak ezezik urtero izaten diren herriko eskulangileak ere: Trini Cruz larrugintzarekin, Jose Juaristi buztinarekin, Jose Elizondo egurrezko tailarekin, Mari Carmen Elorza gantxiloarekin, Jose Membrillera portzelanarekin eta pinturak Egur Tailerraren eskutik. Honez gain, aurtengo Trinitateak antolatzen jardun duen jai batzordeak beste ekitaldi batzuk ere prestatu ditu: ostiralean, hilak 24, zezen mekaniko txapelketa Madalako parkean. Lehen eta bigarren sarituek 5.000 eta 4.000 pta.ko sariak jasoko dituzte hurrenez hurren, eta lehen sei sailkatuek 2.000 pta. Larunbatean, besteak beste, *Jose Ripiau* eta *Baldin Bada* taldeen kontzertua izango da Madalan eta igandean, *Ñaco Goñy and Armonica Project* taldea arratsaldeko 8etan.

Piano piano, *musika* aurrera

Astelehenean hasi eta ekainaren 8ra bitartean, Musikeskolako ikasleek kurtso bukaerako kontzertu eta dantza saioak eskainiko dituzte Herriko Antzokian. Pianoa izan zen protagonista lehenengo kontzertuan. Miren Gorrotxategi, Amaia Lariz, Amaia Gabilondo eta Silvia Hernandezek saia bikaina eskaini zuten, entzuleen gozamenerako. Lau neska gazte hauek 8. eta 9. mailan daude dagoeneko.

Silvia Hernandezek UBI bukatu zuenean piano ikasketekin jarraitzea erabaki zuen, “banakixan haunditxan pianua ikasiko nabala”. Bederatzigarren maila egiten ari da aurten eta dagoeneko hasi da klaseak ematen, “asko gustatzen jata irakastia baina pazientzia haundixa euki bihar da”. Egunean sei ordu pasatzen ditu pianoa ikasten, “pianuak ordu asko sartzia exigitzen dau. Gainera, klasiak astian behin izaten diazenez, norberak antolatzen dau eguna, benetan gustau bihar jatzu aurrera eitzeko”.

Amaia Larizek euskal filologia ikasketak hasi nahi ditu datorren urtean eta, “segu-ruena pianua laga eingo dot, bixak batera eitxia zaila da eta”. Honek, **Mirenek** eta **Amaia Gabilondok** bezala, pianoa aukeratu zuen ahizpak ere instrumento bera jotzen zuelako. Gogoan dute jende aurrean lehenengo aldiz jo zuten eguna, “ordu-
an oin baino askoz trankilao egoten ginan”.

Chopin eta “bakalaoa”

Silvia Hernandez

21 urte ditu eta piano ikasketak egiten ari da. 9. mailan dago. Eskubaloian ibili izan da urte askoan baina uztzi egin behar izan du, “lesioren bat euki dezaket eta irakasleak ezetz esan zian”.

Amaia Lariz

Selektibidadia prestatzen ari da. Poesia irakurtzea asko gustatzen zaio, “Machado eta Asier Serrano batez ere”. Berak ere idazten ditu baina apaltasun osoz esan digu, “oso txrarak dira”.

Miren Gorrotxategi

Enpresariales ikasteko asmoa du. Pianoa gustatzen zaio baina “bakartiegia da”. Berak nahiago du unibertsitateko giroa, “nere ahizpa ikusten dot, zenbat jende ezagutzen daban. Nik gauza bera nahi dot”.

Amaia Gabilondo

LOGSEko lehen mailan dago. Oraindik ez daki zer egitgo duen aurrera begira, “momentuz pianuakin segitxuko dot”. Bach gustatzen zaio asko baina aukeran, pianoaz jazz musika jotzen disfrutatuko luke.

Pianista ona izateko atzamar luze eta finak izan behar direla esaten da. Silviak luzeak ditu, besteek esku normal xamarra baina laurak bat datoz, “horrek zerikusirik ez dauka. Badaude pianista oso onak esku txikixa dakabenak, eta alderantziz”. Pianojoleek, beste askok bezala, badituzte beraien mania eta superstizio txikiak. Mirenek eta Amaia Larizek mingaina kanpora ateratzen dute konturatu gabe, burua eta gorputza batera eta bestera mugitzeko ohitura hartzen da..., “horrek eragina daka. Asko mobitz bazera teklak diferente jotzen ditxuzu. Kontrola oso inportantia da, relajauta jo bihar da”.

Silviari Chopin gustatzen zaio eta Mirenek Bach gorroto du, “lehen askotan pentsatzen naban ia zertarako jaijo zan pertsona hori”. Dena dela, musika klasikotik kanpo, laurei gustatuko litzaieke bestelako musika talderen batean pianoa jotzeko aukera izatea. Silviak jakinarazi digunez, “lagun batzuen juten naiz eta eurekin pianuan jarri eta inprobisatzen hasten naiz. Gozada bat da!”. Guztiek aitortu dute tabernetan eta larunbatetan bakalao musika gustura entzuten dutela.

Eurak autore handien lan bikaina entzuleei “transmititzen” saiatzen dira. Horretarako, “musika horren atzian dauan historia jakitzia edo imaginatzia inportantia da”. Hori egin zuten astelehenean, baita lortu ere.





Garajeak

- ❖ Marradun garajea alokatzen da Urasandin.
☎ 74 31 07
- ❖ Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. zenbakian.
☎ 74 13 77
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen dut Santa Ana kalean.
☎ 74 21 21
- ❖ Garaje ERDI-ITXI bat saltzen dut pista beltzean.
☎ 74 00 39
- ❖ Garaje ITXI bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 30 81

Lana

- ❖ Pertsona nagusiak zaindu edo sukaldean pintxe lanak egiteko prest nago.
☎ 74 36 38 Arrate
- ❖ Tailer batean KONTROL NUMERIKOAN lan egiteko pertsona bat behar da. Esperientzia eta planoak interpretatzen jakitea baloratuko da.
☎ 74 36 84
- ❖ PERTSONA NAGUSIAK ZAINDU eta konpainia egiteko prest nago.
☎ 74 33 19 Maria
- ❖ HAURRAK edo PERTSONA NAGUSIAK zainduko nituzke. Esperientzia daukat.
☎ 74 20 24 M. Angeles
- ❖ GONAK josten ditut neurrira. Zaharra ekarri eta berdin-berdina egingo dizut.
☎ 74 21 40 Konsuelo

Partikularrak

- ❖ MARRAZKETA diedriko, tekniko eta lineal klase partikularrak ematen ditut.
☎ 74 43 98 Iñaki
- ❖ OHOKo Klase partikularrak ematen ditut Mendaron.
☎ 75 51 04 Ana (Arratsalde)

Salerosketak

- ❖ GAY-HOTSA aldizkaria Eibarko Hilbera tabernan salgai.
- ❖ ORDENADORE BAT saltzen dut. 486 DX2-66. 8 MB RAM, teklatura eta arratoia. 80.000 pta.
☎ 19 28 53 / (908) 77 53 67 Ramon
- ❖ KOTXE SILLA egiten den kotxe kapota bat saltzen dut. ARRUE Lord. Merke.
☎ 74 00 16
- ❖ MOUNTAIN BIKE bizikleta berria saltzen dut.
☎ 74 30 30
- ❖ JIMSON Elite sport 49cc motorra salgai. Oso prezio onean.
☎ 74 21 40
- ❖ MENDIKO MOTORRA saltzen dut. 49cc, konponketa txiki bat behar du. 20.000 pta.
☎ 19 21 07 (gaueko 9etatik aurrera)

Etxebizitzak

- ❖ Pisu bat salgai. Berritua. Ubitarte 3, 3D.
☎ 74 34 86 (7etatik aurrera)
- ❖ Etxebizitza alokatzen dut JAKAN UDARAN.
☎ 74 15 22
- ❖ Etxebizitza SALGAI BERNARDO EZENARRO kalean.
☎ 36 17 18 Amaia (gauez)
- ❖ ERROSARIO 28an pisu bat saltzen dut.
☎ 74 13 77
- ❖ ETXE BAT ALOKATU nahi nuke Elgoibar edo Deban.
☎ 74 05 62
- ❖ Errosario kalean PISU BAT ALOKATZEN DA.
☎ 74 09 74
- ❖ BUNGALOW bat alokatzen dut urte osorako, abuztua izan ezik, SANTA POLAN.
☎ 74 12 13 Carmen
- ❖ PISU BAT SALTZEN dut. Prezio interesgarria.
☎ 74 24 51

Agurrak

- ❖ Zorionak hilaren 30ean 6 urte beteko dituen AINARARI amama Pruden eta tia Mariasunen partez.
- ❖ Unai Gastezi eta Jonatan Martinen partez zorionak Onis Sanchezi .
- ❖ Zorionak AINARARI, maiatzaren 24an bere urtebetetzea delako. Bere lagun baten partez.
- ❖ Zorionak ENARA GOROSTIZARI, maiatzaren 23an 11 urte betetzen dituelako. Bere adiskideen partez.
- ❖ Zorionak XABI PEÑARANDARI maiatzaren 23an 11 urte betetzen dituelako. 5. mailako adiskideen partez.
- ❖ Zorionak maiatzaren 21ean 11 urte betetzen dituen JUDITH ZABALARI. 5. mailako lagun partez.
- ❖ Zorionak hilaren 22an 7 urte egingo dituen EGOITZ ANSOLARI bere gurasoen partetik.
- ❖ Zorionak ITZIAR LEIARISTIRI Zumarragako lasterketan 3. iritsi zelako. Jarraitu horrela! Maider, Mireia eta Marian.
- ❖ Zorionak ASIER GISASOLARI maiatzaren 20an 20 urte bete zituelako. Eta gehiago egin ditzazula! Zure familiaren partez.
- ❖ Zorionak ANDONI SCHMIDTI maiatzaren 25ean 11 urte beteko dituelako. Osaba-izeba eta lehengusuen partez.
- ❖ Zorionak maiatzaren 25ean 11 urte beteko dituen ANDONI SCHMIDTI megazorionak. Ikerren partez.
- ❖ Zorionak Lourdesi maiatzaren 25ean 24 urte beteko dituelako. Bere familiaren partez.

Bestelakoak

- ❖ BI BIZIKLETA dauzka emateko Caritasek.
☎ 74 15 09 / 74 12 57

OSASUNA

- Anbulategia:
- Larrialdiak.....461111
 - Txanda hartzeko.....743354
 - Planning-a742950
 - Alkoholiko Anonimoak..740385
 - D.Y.A (anbulantzia) ..464622
 - Gurutze Gorria.....743864
 - Mendaroko Ospitalea756264
 - Drogomenpekotasun Z.741008
 - Odol Emailak.....743936

GARRAIOAK

- Eusko Trenbideak.....740442
- PESA (Eibar).....102131
- Taxi geltokia.....740898

UDALA

- Euskara Zerbitzua.....744366
- Udal Kirol Patronatua744415
- Kultura Zerbitzua742158
- Mendaroko Udala756100
- Ongizate zerbitzua...743736
- Udaletxea741050
- Udalzaingoa741394

BESTELAKOAK

- Caritas740142
- Elgoibarko Izarra.....741626
- Kontsumo Bulegoa ...743088
- Liburutegia743525
- Musika Eskola742145
- Mintxeta744315
- Parrokia740842
- Polikiroldegia741361
- Postetxea.....741547

HIRUGARREN ADINA

- San Lazaro Egoitza...740296
- Zaharren Biltokia740526

IKASTETXEAK

- Haur Eskola.....74 21 41
- Herri Eskola.....74 08 79
- I.M.H.74 41 32
- Institutua74 02 67
- Ikastola74 44 41
- L.H.I.....74 44 80
- Pilar Ikastetxea74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

- BARREN.....74 41 12
- El Diario Vasco74 40 73
- El Mundo74 27 59
- El Correo Español...74 10 82
- Egin.....10 84 21
- Zazpiki irratia74 34 74

OSTIRALA

19,30 MUSIKAESKOLAKO KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

21,30 BERTSO AFARIA

✓ Kimetz-en

Antolatzailea: HB

22,15 ZINEA

“Casino”

LARUNBATA

11,30 ZAZPIKIREN BILERA

✓ Zazpiki irratia ren lokalean

22,15 ZINEA

“Casino”

IGANDEA

16,30 ANTZERKIA

Taldea: Ados

Antzelana: Robinson Crusoe

✓ Herriko Antzokian

Antolatzailea: Deba Beheko

Eskolarteko Antzerki Erakusketa

19,30-22,15 ZINEA

“Casino”

ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Casino”

ASTEARTEA

19,30 DANTZA ESKOLAKOEN JAIALDIA

“Ikasleak” saioa

✓ Herriko Antzokian

22,00 ZINEA

“Casino”

OSTIRALA

22,15 ZINEA

“Toy Story”

23,00 ZEZEN MEKANIKO TXAPELKETA

✓ Madalako parkean

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
25, larunbata:	Yudego	Anduaga
26, igandea:	Yudego	Anduaga
27, astelehena:	Bidasolo	Ormazabal
28, asteartea:	Bidasolo	Anduaga
29, asteazkena:	Bidasolo	Escala
30, osteguna:	Bidasolo	Yudego
31, ostirala:	Bidasolo	Bidasolo

OKINDEGIA:

26, igandea: FOTERO

ZineA

Casino

Zuzendaria: Martin Scorsese
Antzezleak: Robert De Niro, Sharon Stone, Joe Pesci.

Las Vegas, 1973. Sam “Ace” Rothstein zaldi lasterketan apostuak egiten duen profesionala da. Mafioso talde batek casino bateko zuzendari izateko aukeratzen du. Bere zereginak casinoaren funtzionamendua kontrolatzea eta dirua bere buruei helaraztea dira. Sam-en emazteak drogekin arazoak dituen emakume ederra da. Egun batean Sam-en lagun mina den Nicky heltzen da Las Vegas-era.



EGUZKITAKO BETAURREKO GRADUATUAK 9.500 pta.tik AURRERA



ikus

OPTIKA
OPTIKO-OPTOMETRISTA

San Bartolome, 10 - Tel. 74 37 34 - ELGOIBAR

Atlanta 1996

**PACK
GAZTEA**

ERABILI ETA BOTATZEKO KONTAKTUZKO
LENTEAK SEI HILABETERAKO. 355 ML.TAKO

RENU SOLUZIOKO BI BOTE.

LENTILAK GORDETZEKO ONTZIA.

KIROLERAKO POLTSA

ESKLUSIBO BAT OPARI.

17.000 pta.


SUPER
POLTSA
OLINPIKO HAU
OPARI II



**PROMOCIONES
MENDARROZABAL S.L.**

450 m²ko lorategia duten
BI ETXE UNIFAMILIAR
eraikiko ditugu Mendaron

☎ 76 27 58



GREMIOEN GIDA

ARROZTEGIAK

ARMEKO

Armairu enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 74 43 83

BIENA

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 74 31 16

GARCIA

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 74 32 38

JUARISTI

Leihoak-Armairu enpotratuak
Ubitarte, 2
☎ 74 13 33

LODOSO

Leihoak
Ermuaranbide, 16
☎ 74 34 90

SORALUZE

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 3
☎ 74 36 34

ULAZIA

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 74 05 47

YOSU THERMIK

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 18
☎ 74 43 83

ZABALA

Etxeko erreformak-enbalajeak
Deba kalea 16
☎ 74 03 96

ITYROIINTZA

ANGEL

Santa Ana, 5
☎ 74 17 61

JAVI

Erretxindi, 1
☎ 74 14 80

JUAN CARLOS S.L.

Urasandi 59-61, behea
☎ 74 34 87

ONGI

Urasandi, 8
☎ 74 10 82

PAGOAGA

San Antolin kalea, 13
☎ 74 02 79

ZALDUA

Urasandi, 26
☎ 74 05 30

ZUBIZARRETA

Ubitarte, 5
☎ 74 07 89
☎ 908 14 30 40

**Gremioen gida
honetan azaldu
nahi baduzu, deitu !**

☎ 74 41 12

IGELTSEKITZA

KIDEEK S.L.

San Roke, 17
☎ 74 34 86
☎ (989) 58 37 61

ANTONIO MARKEZ

Urasandi, 24
☎ 74 34 18

JOSE LUIS MENDEZ

Urasandi, 24 - 2B
☎ 74 29 87

PATXILLO

Pedro Muguruza, 13-5
☎ (908) 31 96 42

ISOLAMENDYAK

GLAS CONTROL S.L.

Inpermeabilizazioak
Ubitarte, 7
☎ 74 30 94

ELEKTRIZITATEA

AZPELETA

San Frantzisko, 51
☎ 74 12 38

BETI ARGÍ

Errosario, 6
☎ 74 16 44

URZELAI

Santa Ana, 12
☎ 74 13 76